AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSASUN SAILA

161

AGINDUA, 2014ko abenduaren 16koa, Osasuneko sailburuarena, saileko goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat izendapen askez betetzeko egindako deialdia ebatzi eta delako lanpostua betetzeke uzten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan eta sail honetan dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarriz Osasuneko sailburuak 2014ko apirilaren 1ean emandako Aginduko (apirilaren 14ko EHAA, 72. zk.) laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera, honako hau.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osasun Saileko Osasun Sailburuordetzako goi-kargudunaren idazkari lanpostua (C/D taldea, 520010/124 kodea, 18 maila) betetzeke uztea.

Bigarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen duenez, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, agindua Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean; bestela, administraziorekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu beharko da Administraziorekiko Auzietako Epaitegian, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 16a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.